

## **PROPOSAMENA: HIRI HONDAKINEEI BURUZKO BATZORDE EZ-IRAUNKORRA SORTZEA**

Reyes Carrere Zabalak, EH Bildu udal taldeko bozermaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90, 91 eta 148. artikuluk oinarri, **Hiri Hondakineei Buruzko Batzorde Ez Iraunkorra** sortzeko proposamena aurkezten du.

Donostiako Udalaren lehentasunetako bat da hondakinen sorrera saihestea eta horien kudeaketa hobetzea. Horretarako, prebentziorako eta hondakinak hobeto kudeatzeko neurriak daude ezarrita. Kudeaketa egoki baten ondorioz, hiri hondakinen murrizketa, berrerabilpen eta birziklapen maila altuak lortu beharko lirateke.

Kontuan izan behar da azken lau urteetan Donostian birziklapen-tasa ez dela igo. Beraz, egungo egoera ikusita (klima larrialdi egoera, gure gizartearen garapena eta herritarren ohiturak), hausnarketa egin beharra dago gaur egun Donostian egiten den hiri hondakinen egoeraz eta kudeaketaz. Halaber, ezin dugu albo batera utzi Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Planaren barruan, Donostiako udalerrian, Zubietan, martxan jarri nahi diren hondakinak tratatzeko plantek gure hiriko hondakinen kudeaketan izan dezaketen eragina.

Horiek horrela, **EH Bilduk HIRI HONDAKINEI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKORRA** sortzeko **PROPOSAMENA** aurkezten du, hurrengo Udalbatzan azter dadin:

- **Helburua:** Hiri hondakinen kudeaketa aztertzea, gure udalerriko hondakinak biltzeko sistema, arrazionalizatzeko modua eta zerbitzuaren beste ezaugarri batzuk, hala nola tasa bera eta kasu jakin batzuetan ezar litezkeen hobariak, eta azkenik, Zubietan hondakinak tratatzeko ezarri nahi diren plantek Donostian izango duten eragina.

- **Osaketa:** udal talde bakoitzeko kide bat.

- **Iraupena:** urtebete.

- **Bileren maiztasuna:** hiru hilean behin, gutxienez.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

Donostia, 2019eko urriaren 4a

Reyes Carrere Zabala,  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea